

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Albisteak

ETEN erakundeak HUHEZI onartu du bere baitan

2008/01/08

ETEN erakundeak (**European Teacher Education Network**) onartu egin du bere baitan Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea, HUHEZI, aste honetan bertan nazioarteko hezkuntza sareak jakinarazi dionez **Joxemari Egañari**, zein arduratzen baita fakultatearen nazioarteko harremanez.



52 unibertsitate eta erakunde (denak ere hezkuntzan espezializatuak) daude ETENSarean, herrialde hauetakoak: Belgika, Danimarka, Ingalaterra, Faroe Uharteak, Finlandia, Israel, Lituania, Mazedonia, Holanda, Norvegia, Portugal, Suedia eta AEB.

ETEN 1988an sortu zen Danimarkan, eta **bere helburuak dira bultzatzea ikasleen eta irakasleen arteko elkarlana eta mugikortasuna eta sustatzea elkarlana ikerkuntzan.**

Urtarriletik aurrera, hortaz, **HUHEZI** fakultatea ETEN erakundeko kide izango da.